

MIKEL LASKURAIN
JON PLAZAOLA
OIHANA MARITORENA
ANE GABARAIN
HOLLYWOOD
ÓSCARRA ÓSCARRENTZAT
MARIO HERNÁNDEZEK
IDATZIA ETA ZUZENDUA
JAVIER NAVAL
EKOIZPENA
TXALO
LaMandanga
BANAKETA
TXALO PRODUKZIOAK
JULEN AMONDARAIN · XABIER AGIRRE
629406699 · 943333788
xabier@txalo.com www.txalo.com

# SINOPSIA

**Los Angeles (EAB) Zine Akademiako sariak,** Oscar preziatuak banatzen direneko gau magikoa. Baina gu ez gaude Kodak Antzokian;  gu hiriaren kanpoaldean kokatutako Motel xixtrin batean gaude, istorio hau kontatzeko eskenatoki bakar bezela balioko digun terrazadun gelan. Hori bai, urrun (oso urrun) “Hollywood”-en kartel famatua ikusten dugu.

Óscar Manzano zine zuzendari gaztea Laburmetrai onenaren sailean izendatu dute sari garrantzitsu hauetan eta Zinearen hirira iritsi da Guillermo Barrientos Kultura Ministroa eta Irene Navarro Hazienda Ministroarekin batera, batek daki zergatik. Batek jakingo du, Oscarrek ez behintzat.

Bi politikariek ezin dute elkar ikusi ere egin, eztabaida eta matrakan dihardute etengabe Oscarren kalterako eta Zeremonia hasteko ordu gutxi falta direla hori da panorama.
Oscarrek ustegabeko bixita ere izango du; Pauline izeneko Escort Girl misteriotsu batena. Berak ez dakiena da neska Guillermok berak kontratatatu duela Sari Banaketan eta Alfombra Gorrian bere neskalagunaren plantak egin ditzan.



Orkestarik desafinatuena ere ondo utziko luken laukote honek euren bizitzako gaurik zoroenetakoa igaroko du Motel txiki horretan, Zeremoniaren aurretikoak eta ondorengoak banatzen dituen ordu t´erdiko komedia honetan. Bilatu gabe elkar aurkituz, gorrotatuz, maitatuz eta mila gauza gehiago biziz. Denok batzen gaituen marko baten barruan, hori bai. Ametsak, gure ametsak, eta haiek betetzeko atzean zer uzteko gai ote garen.

ÓSCARra
ÓSCARrentzat
MARIO HERNÁNDEZEK
IDATZIA ETA ZUZENDUA

# Zuzendariaren Oharra



**"Oscarra Óscarrentzat"** Miguel Miuraren "Tres Sombreros de Copa"-ri eta bere izaera absurduari egindako omenaldia izateaz gain Berlangaren lanetik ere asko dauka. Lehen zatia Vodevil klasikoenaren erritmo azkarrean igarotzen da, enredo komedia zoro baten abiadurara. Baina bigarrenak erakusten ditu lanak mahai gainean jarri nahi dituen sentimendu kontrajarrien eta argi-ilunen arteko kontrasteak.

Dualitate hauxe da pertsonaietan ematen dena ere; guztiek izan nahi baitute "beste norbait" edo hori adierazten saiatzen dira bederen, euren izenak (edo aurpegiak) aldatzeraino, itxurakeria hutsagatik edo euren buruak engainatzeko bestela.
Denok ditugu ametsak baina hauek lortzeko bidean sarritan abiapuntuan ginen pertsona hori izateari uzten diogu. Beraz, norena da ametsa? Ez dago galdera honi erantzuteko Hollywood baino toki hoberik. Ametsak egi bihurtzen direneko hiria.

Konfinamentuan zehar idatzitako lana da hau; denok amesteko eta barre egiteko benetako beharra sentitu genuen garaikoa. Zuzendariarentzat ikuslegoari Óscar, Guillermo, Irene eta Pauline aurkeztea betetako ametsa bezelakoa da, elkarbanatzea merezi duen ametsa. Elkarbanatzekoa, barre algara bezela. Elkarrekin barre egitea eta ondo pasatzea baita benetan pena merezi duen Oscar baten moduko saria.

**Mario Hernández**

ÓSCARRA
ÓSCARRENTZAT
MARIO HERNÁNDEZEK
IDATZIA ETA ZUZENDUA

# AKTOREAK



ANE GABARAIN



MIKEL LASKURAIN



JON PLAZAOLA



OIHANA MARITORENA

# TALDEA

**AKTOREAK**

Ane Gabarain
Mikel Laskurain
Oihana Maritorena
Jon Plazaola

**ZUZENDARIA**

Mario Hernández

**EKOIZLEAK**

LaMandanga Producciones
Txalo Produkzioak

ÓSCARra ÓSCARrentzat

Mario Hernándezek
Idatzia eta zuzendua

# Harremanetarako


**Txalo Produkzioak**

Eziago Pol., 8, 20120
Hernani, Gipuzkoa

xabier@txalo.com
julen@txalo.com

Xabier 629 406 699
Julen 615791534

**LaMandanga Producciones S.L.**

Eduardo Benot 2, 28008
Madrid. Despacho 1

info@lamandanga.es
lamandangapro@gmail.com

Juan Pablo 663 058 668
Esteban 678 444 808


ÓSCARrra ÓSCARrentzat

Mario Hernándezek
Idatzia eta Zuzendua